



## ZILARREZKO EZTARRIAK

Julian Barrenetxea Abesbatzak 25 urte bete ditu. Gogotsu jarraitzen dute, baina kide berriak lortu nahi dituzte 20

# *mieleren edozein produktu erosiz gero...*

*500€ - 1.200€ arteko erosketetan, 10 hilabeteko  
finantziazioa INTERESIK GABE*

*1.200€tik gorako erosketetan, 20 hilabeteko  
finantziazioa INTERESIK GABE*



**MILAR  
LARRAMENDI**



Milar Larramendi  
Xabier Munibe, 11  
Julio Urkijo, 16 Azkoitia  
Tel. 943 85 18 97

## uztarria

**Argitaratzailea.** Uztarria  
 Komunikazio Taldea. Azpeitia  
**Egoitza.** Perez Arregi plaza 1, behea,  
 (Azpeitia, 20730)  
**Telefonoa eta faxa.** 943 15 03 58  
**Posta elektronikoa.**  
 uztarria@topagunea.com  
**Posta kutxa.** 227, Azpeitia  
**Lege gordailua.** SS-860/2000  
**Zenbakia.** 134.a (2011ko abendua)  
**Urtea.** XII.a (1999ko azaroan sortua)  
**Maiztasuna.** Hilabetekaria  
**Diseinua.** Eregi Komunikazio eta  
 Euskara Zerbitzuak  
**Publizitatea.** 685 730 792 /  
 oalegria@uztarria.com  
**Bazkidetza.** 943 15 03 58  
**Tirada.** 2.500 ale hileroko  
**Inprimategia.** Leitzaran Grafikak  
**Azaleko argazkia.** A. Agirrezabala  
**Web orrialdea.**  
[www.uztarria.com](http://www.uztarria.com)

**Uztarria herri aldizkariaren laguntzaileak** (erakunde publikoak)




Gipuzkoako Foru Aldundia



**Uztarriak Bai Euskarari** Oharra. Uztarria Komunikazio Taldeak ez du bere gain hartzen herri aldizkariaren adierazitako esan eta iritzien erantzukizunik



## 2011KO ABENDUKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER?



### iritzia

**Inkesta.** Gabonetan zer: jolas-parkera ala zine-ziklora? **13**

### mamia

**Mikel Alberdi.** 'Hizkien eskalea', bere lehen liburuaren inguruan hizketan **04**  
**Klik!** Azaroko lehen asteburuan izandako uholdeak argazkitan **16**  
**Soreasuko aparkalekua.**

Gehienetan ia hutsik, Udalak irtenbidea aurkitu nahi dio **24**

### jakiteko


**Elkarrizketa informala.** Gabonak gainean, solasean Olentzerorekin **32**  
**Iñaki Zabala 'Xestero'.** Bizikleta, lagunik onena **34**  
**Hantxe bertan.** Garazi Agirre, Kolonbian **37**

egin zaitez bazkide Uztarrian




943 15 03 58

**Herri aldizkariak gain, Uztarriaren produktuak ere eskuratuko dituzu.** Uztarria Komunikazio Taldeak orain arte **12 liburu** (behekoak), **CD 1** (ondokoa) eta liburuxka biografikoak atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen, urteko kuota barruan.



**1.157** bazkide **gara** dagoeneko Uztarrian; eskerrik asko denei.

**30** euro dira urtean. 106.400 euroko aurrekontua du Uztarriak 2011. urterako.



**Liburuxka biografikoak.** Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Santi Lazkano, Amaia Garmendia, Enkarna Arregi, Iñaki Bergara

# MIKEL ALBERDI

mistiko laikoa

## “Hitza beti labor geratzen da”

‘Hizkien eskalea’ kaleratu berri du. Bere lehen liburu honetan egoera soilenetan ematen diren sentipen sakonenak islatu nahi izan ditu. 📝📺 Joxin Iturriotz

**I**dazteaz gain, geure barrura begiratuz erlijioetatik aparteko espiritualtasuna bilatzen du, mundu berria sortzeko.

### **Liburua auto-edizioa duk. Editorial batekin ez?**

Bi arrazoi zeudek. Alde batetik, urte batzuk baditiat. Editorial baten bila joatea, lantegi handia izateaz aparte, norberak harrokeri pixka bat ere bazeukak... Nik ez diat uste ezer demostratu behar dudarik. Denok ezagutzen diagu irizpideak nola ezartzen diren. Bazagok norbait esaten duena “hau publikagarria duk” edo “ez”, eta nik ez nian hortik pasatu nahi.

Baina bazagok beste arrazoi bat, sakonagoa. Baduk jendea euskal kultura berri bat egin behararen alde. Merkatuak produk-

tuak eskaini behar ditik eta pertsonak gaudek begira produktu horiek erosteko. Niri garrantzitsua iruditzen zaidak komunikazioak klabea izan behar duela kultura berri bat eraikitzeko, eta esparru hori gizarteak hartu behar duela. Errebindikazio modu bat duk jendea hasteko komunikatzen, espresatzen, sormena lantzen, esparru hori betetzen merkatutik kanpo. Eta espekulazioaren kontrako jarrerarekin. Produktu bat egin jende artean banatzeko, konpartitzeko, eztabaidatzeko, merkatutik pasatu gabe. Jendea animatu nahi diagu horrelako gauzak egitera. Ideia probokatzaila duk. Mila formatu egon litekeek hire ideiak espresatzeko. Merkatuaren eta pertsona-

### ||| DATUAK |||||

||| **Jai**. 1960ko irailak 25.

||| **Herria**. Azpeitia.

||| **Bizi tokia**. Azpeitia.

||| **Lanbidea**. Irakaslea.

ren artean dagoen esparru hori komunikazioz betetzea proposatzen diagu.

**Hiru atal egiten dituk liburuan, maitasunaren, hitzaren eta beldurraren atalak. Baina poema guztietan azaltzen dituk hiru arlo horiek. Ez dik ematen atalak hain definituak daudenik.**

Beldurraren atalean poema guztiak nahiko beltzak dituk. Beste bi ataletan nahasiago zeudek. Iruditzen zaidak oso zaila dela maitasuna, hitza eta beldurra bereiztea. Nik “maite haut” esatean maitasun horrek beldur pila bat dik...

Guk komunikatzeko hitzak erabiltzen dizkiagu, eta hitz horiek errealitate bat jaso nahi diate, baina hitza beti labor geratzen duk. Errealitatea konplexuagoa duk. Hiru atal aurkeztu dizkiat. Maitasuna izan litekeek estetika-aren mundua, hitza sinboloen mundua, eta beldurra eromenaren mundua edo beste zerbaite-na. Horiek beti batera ematen dituk, eta bat eta bestea bereizten duena oso esparru estua duk. Joko bat egin diat hiru atal bereiztuz baina, adibidez, Afrikako poemak hiru ataletan zeudek. Afrikan hizkuntza asko, maitasun asko eta beldur asko zeudek, eta zaila duk poema baten bat bereiztea. Horrekin jolastu egin diat, erreferenteak edukitzeko. Azken bate-

an, irakurleak garrantzia ematea nahi izan diat maitasunari, hizkuntzari eta beldurrari.

### **Poematan heriotzarako joera ikusten diat...**

Heriotza estetiko duk. Heriotza izatearen sinboloa duk. Pentsamenduaren munduan bizitza uztea duk heriotza, iraunkortasunarekin ezerezean bat egitea. Erlijioek, kulturek, filosofoek, izen asko jarri zizkiotek, espiritua, Jainkoa, energia... Hitzek gehiegi finkatzen ditek. Baina heriotza oso bisuala duk, bukaera duk, baina esnatzea ere bai. Bizipenak dituk. Ez duk pentsamendurekin defini daitekeen ezer. Poesiak apuntatu egiten dik zer edo zer, jakin gabe zer edo zer hori zer den.

### **Ez dakik bizipen horiek definitzen, baina oso argi daukak bizipen sakonenak egoera soiletan, biluziengan, ematen direla, adibidez, desertuan.**

Horregatik gustatzen zaidak Afrikara joatea. Ezer ez dagoen lekuan, pertsona engainatzeko distrakzio gutxi dagoen lekuan, ezerez horretan hurbilago hago hire barruko errealtatearekin. Esperientzi mistikoetan ere hala gertatzen duk. Eremitak desertura joaten hituen, nabaritzeko hitzetatik haratago dagoen zerbait hori. Telebista ez duk ona, liburu gehiegi edukitzea ez duk ona...

Leku soiletan, bakartietan, ni hobeto sentitzen nauk. Barne bizipena hobeto sentitzen diat.

### **Desertuan berrogei egun egin, eta orain predikatzen hasi haiz?**

Ni saiatu nauk nire bizipenen argazki batzuk hitzetan jartzen. Baina ez diat ezer predikatu nahi. Poema horietan mezu bat baldin badago, hori duk: "Heu izan hadi, heu izan hadi". Poesiak lagun zezake bizipen batzuk izaten.

### **Barka iezadak, baina iruditzen zaidak hire diskurtsuak kutsu mistikoa daukala. Hire poema definitzeko "mistika laikoa" esaera erabiliko nikek.**



## Hitzen eskalea

||| Ez dakit zergatik nahi dudan idatzi idaztea kostatzen zait eta hitzek ezin dute inoiz nire pentsamendu jarioa errenditu ez dakit idazteak ez ote duen zailtzen nire desagertzeko bokazioa...

...nekez idazten dut olerkia hitzetan bidaiatuz

...nekez idazten dut olerkia egunen baten inork irakur dezan hustasunaren geografietara doazen bidezidorretan.\*

Mistika izango huke 'transzendentea'-rekin lortzen dugun komunikazioa, baina transzendente hori gure barruan zago. Espiritualtasuna gure barrutik eraiki liteke. Arazoa duk transzendenteari izena jartzen diogunean. Erlijioak sortzen dituk, jainkoak eta

egiturak sortzen dituk, eta horiek arriskutsuak dituk. Mistizismo laikoak norbere izatearekin, pentsamendutik kanpo dagoen zerbaitekin, lotzeko aukera errebindikatu lize.

Transzendentea izatean, gure barnean, kokatzen baldin badu-

gu, eta denok daukagula eta konpartitu dezakegula esaten badugu, konturatuko gaituk denok garelako izaki baten parte. Gizatasun horretatik abiatuta mundu berria sor zezakeagu. Gu denok bakanak gaituk, baina aldi berean konturatzen gaituk denok daukagula zerbait elkartzeko gaituena. Eta hori izan liteke gizartearen beste era batera antolatzeko oso tresna egokia. Baina kanpora begiratu beharrean barrura begiratu behar diagu. Mistika ez duk erlijioaren patrimonioa, gizakiarena baizik.\*

Liburua ez dago salgai. Oparitzeko, konpartitzeko, eztabaizatzeko, kaleratu du. Nahi duenak, Mikel berari eskatzea besterik ez du. Bestela, liburutegian ale batzuk utziko dituela agindu du Mikelek. Interneten ere denon eskura jartzeko asmoa du, dohain, noski.

# Gabonetako merkealdiak

**L**ehen ohikoa zen merkealdiak beti urtarrilean izatea, gabonetako gas-tatzeko griña agortu eta gero. Kontsumismoaren betekadak ez zuen bukaera izaten Errege eguneko rosakoa jatean. Han jarraitzen genuen kontsumoa sustatuz famatuak egin ziren merkealdietan. Nork ahaztu telebistan ikusitako irudi haiek: jendea korrika denda handienetan lehenak izateko erosten.

Baina dirudienez aurten merkealdiak aurrreratu egin dira. Eta ez naiz ari dendetako merkealdiari buruz, hain zuzen ere. Erakunde publikoak izan dira aurten merkealdi berezi batzuk abian jarri dituztenak. Dena da merkeago orain. Merkeagoa da langileak kalera-tzea, merkeago langileei beraien lanaren truke eman beharreko dirusaria, merkeago gizartean gutxien duteneei bere eskubideak ukatzea... Adibide bezala ditugu Katalunian eta Euskadin erkidegoko gobernuak iragarritako neurriak. Eta itxaron gainera, oraindik Rajoy Errege Magoa etorriko delako bere opariekin 2012 hasierarako.

Zalantza gutxi daude neurri hauen atzetik merkatuetako diktadura dagoela. 2008tik hona garbi gelditu da zorrotzak eta mende-kati direla beraien gustuko ez diren gobernuekin. Eskubide sozialak mantendu nahi dituela gobernuak, ba hor doakio burtsetan abisu garbia. Ezin ukatu defizita murriztea beharrezkoa dela baina neurri hauekin krisia sortzen erru gutxien dutenen kontura konpondu nahi dira orain kontuak, hainbeste urteetako borrokaren ostean lortutako eskubide zilegien murrizketarekin.

## Non dago Alibabaren haitzuloa?

Hori da herriko kaleetan irakurri izan dugun galdera. Erantzuna ez da zaila jakitea baina Corrugados-eko langileentzat hori ez da kontsolamendu handia. Eta nahiz eta enpresa honetako kasua egin den ezagunena, berak herri guztiko ekoizpen-sistemaren birmoldaketaren beharra argi eta garbi utzi du.



|||||||markel mendizabal|||||||

|||Erakunde publikoak izan dira aurten merkealdi berezi batzuk abian jarri dituztenak

Lehenbizi, beharrezkoa da egoera larrian dauden langileei lagundu eta irtenbide bat ematea egoerari. Baina luzera begira ezin ukatu industrian oinarritu den ekoizpen-sistema ez dela iraunkorra gure herrian. 1980ko hamarkadan iada birmoldaketa industrialaren ondorio lazgarriak jasan ziren, gehienbat Bizkaian, baina gure artera ere iritsi da aldaketak ezartzeko garaia. Giza kapital hobea eta teknologia ikertzen eta garatzen (I+G) inbertitzea ezinbestekoa da etorkizuneko erronkei aurre egiteko. Zerbitzu sektorea da ekonomia garatuenean sektore ekonomiko nagusia eta berau sustatzea beharrezkoa da herriko egoera ekonomikoa hobetzeko.

Ez dira epe laburreko aldaketak eta denbora eskatzen dute. Gainera oso beharrezkoa da aldaketak orain hartutako eskubide sozialen murrizketa gabe egitea. Nahiz eta aurkako dioten, Austria eta Herbeheretako kasuak egitea posible denaren adibide garbiak dira.

Gabonak datoz beraz baina merkealdiekin. Hala ere, merkatuek ezin ditugutena kendu gure herriaren etorkizunean dugun itxaropena da. Ea behintzat jai tristeak diruditenak etorkizun hobe baten abiapuntu diren.✘



# urrategideko

altzariak & sukaldeak



círculo  
muebles



“ETXEBELTZ -  
IZARRA”  
ESKAINTZA ETA  
PROMOZIO  
BEREZIAK.



## 1. SOLAIRUAN GAUDE

ARRETXE KALEA 9 - 1. SOLAIRUA  
20730 AZPEITIA (GIPUZKOA)  
TEL. 943 85 72 44 · FAX. 943 85 13 14  
urrategideko@urrategi.eu  
[www.mueblesurrategi.es](http://www.mueblesurrategi.es)

# Txin-txin, txin-txin...

**I**ritsi da aurtengoa ere azkenetara. Heltzear dira Gabonak, eta horrekin batera, kolonia eta jostailuen iragarkiak telebista eta gutunontzietara. Iritsi da gorria erakuslelhoetara. Papanoel-en gorria, Olentzeroren ikatz beltzarekin borrokan. Baserritar jantzia bizar zuriari irabazi nahian.

Baina ez, gaurkoan ez dut gabonetaz hitz egin nahi, ez duk kontsumoaz, tradizioaz... hitz egin nahi. Beno, tradizioa bada (zenbaitentzat), kontsumoa ere bai, Gabonetan izaten da... Beno, loteriaz aritu nahi dut. Bai, Gabonetako Loteria Nazionalaz (espainiarraz, alegia).

Uste dut, noizbait, aipatu dudala ez dudala erosten loteriarik. Ez Gabonetakoa, ez asteakoa, ez 11/11/11n denok aberastu behar genuen horietakoa. Ez dut erosten. Ez naiz erosi zalea.

Ez dut zortean sinesten, eta gutxiago egunen batean lau xentimo gastatu eta bi xentimo bada ere tokatuko zaizkidala. Eta koherentziaz, ez dut (tokatuko ez zaidan) Espainiako Loteria Nacionaleko dezimo bat esku artean izan nahi. Ez dut nahi xentimo bat gehiago ematea Estatuari.

Ez dut oportetarik ekartzen oparitzeko, eta ez didate oparitzen. Ez dut lagunekin konpartitzen. Ez diot nik ez dakit nongo ezagun bati erosteko esaten. Ez dut lankideek izaten dutena erosten.

Gajoa ni. Denak aberastuko dira eta ni ez. Pentsa, ia kiebran dagoen Estatua ere auskalo zenbat milioi aberatsagoa izango den abenduaren 22tik aurrera, eta ni ez. Baina hauteskundeetan bezala, loteriarekin ere denak irabazten dute zerbait. Botatakoa ko-bratzen duena, irabazle izaten baita.

## Koherentzia

Jarri Interneten Loteria Nacional, eta ttak: 'La fabrica de los sueños', ageri da. Irudimenari bidea libre uzteko aukera bikaina. Baina atzetik diruak ez duela zoriontasuna ematen esa-



ihintza agirretxe

III Ondorioa beti dirua da.  
Zoriontasuna eman  
eta koherentzia kentzen  
digun dirua

ten digute. Norberak bilatu behar omen du bere zoriontasuna, baina ahal bada dirua gastatuz. Ez dugun, baina tokatuko zaigun hori gastatuz, alegia.

Niri 180 serie horietako 100.000 dezimotako inork ez dit zoriontasuna emango, beraz, ni ere irabazle. Nik koherentziarekin irabazten dut. Horrekin aberasten naiz.

Askotan atentzioa eman izan dit zenbait lekutan loteria aurkitzeak. Zenbait girotan ez nuen inoiz pentsatuko Espainiako Loteria saltzen ikusiko nuela, baina ikusten dut. Eta ez dut ulertzen. Saiatu naiz esplikazioren bat bilatzen, eta ondorioa beti dirua da. Zoriontasuna eman eta koherentzia kentzen digun dirua.

Euskaldunetan euskaldunenak izango gara. Abertzaleetan abertzaleenak izango gara. Eta Espainiako loteriarekin aberastearekin amets egingo dugu. Abenduaren 22an, ajea pasatzearekin bat, loteriako zenbakiei begiratuko diogu, ea aberasten garen. Bestela, dirurik eta koherentziarik ezean, osasuna izatearekin konformatuko gara.\*







Bitxitegia  
DISDIRA

swatch+

Bitxitegia  
DISDIRA

swatch+

Bitxitegia  
DISDIRA

swatch+

**landeta**  
brikodenda

eurotex



BURDINDEGIA - BRIKOLAJEA - ELEKTRIZITATEA - SEGURTASUN BABESA - GILTZEN KOPIAK  
PARKET-AK - GARBIKETARAKO MATERIALA - OSAGAIK



Landeta Hiribidea, 8 - Azpeitia  
Tel.: 943 81 25 66 • Mug. 607 58 89 13  
[www.landetabrikodenda.com](http://www.landetabrikodenda.com)



jarraitu gaitzazu facebook-en

## HIZKUNTZ ESKUBIDEAK



### **GORA.** Prezio gozoak, euskaraz noski.

Poza ematen du erosketak egitera joan eta erakusleihoetako kartelak euskaraz ikusteak. Bejondeiela euskarari bultzada ematen dieten dendari guztiei. 🍴 **Uztarrria**



### **BEHERA.** Barraskilo elebakarrak.

Martxa honetan euskararen normalizazioa ez dugu berehalakoan lortuko. Barraskiloen erritmo geldoa ez al du hartuko, behintzat! 🍴 **Uztarrria\***



Manex Beristain.

### ESANA DAGO

“Arantzak dauzka (kaktusak) eta horiek gizartearen aurreiritziak dira”

MANEX BERISTAIN  
‘krixpin kaktusa’  
idatzi du

“Osalde egitasmoa koordinatzen ari naiz; ospitale psikiatrikoa hobetu nahi dugu”

“Gobernuak oso ideia onak ditu, baina dirurik ez horiek aurrera eramateko”

MIREN ODRIOZOLA  
El Salvadorren dago

“Nire testuak liburu bihurtu arteko bidea oso-osorik zaindu ahal izateko argitaletxe propioa [Gaumin] sortu dut”

FERNANDO MORILLO  
idazlea

## Bat gehiago ala bat gutxiago

**D**enbora azkar pasatzea seinale ona bada, primeran bizi naiz. Astelehenetik ostiralerako bidea Saharako basamortua zeharkatzea bezain luze eta neketsua izaten zen sasoi hura aspaldi pasatu zitzaidan. Orain, momentua tarteka luze egiten da, baina denbora, Red Bullak baino azkarragoa doa. Al-boko xakelek esango luketen bezala, "ohar-tzeke, kaniketan aritzen zen hura erabat atontzeko bidean da".

Urteek hilabete gehiago behar lituzkete, hilabeteek egun gehiago eta egunek ordu gehiago. Alperra izan arren, lanari ere gustu

hartzen zaio, bera baita bizitza makalago donaren sentsazioa ematen digun une bakarretakoa.

Bizitza bizi doa eta gu, bizitzaren abiadurari segi ezinik, beti presaka. Lagun batek dioen bezala lo ere presaka egiten dugu. Eta beste lagun batek dioenez presaka torero txarrak eta lapurrak ibiltzen dira. Bizitzeko, ondo bizitzeko eta ez irauteko, beste patxada bat izan behar da. Patxada hori, ez patxaran hori, non saltzen ote dute?

2011 zenbakiarekin bataiatu genuen urtea ere, gizajoa, eman beharrekoak eman eta



txetxu urbieta

badoa. Eta berak erru handirik izan ez badu ere, historiako liburuetan urte txarra izan denaren fama izango du. Krisi, murrizketa, langabezi, ERE, prima eta beldurraren urtea izango da. Aberatsen eran bizitzeko formula asmatzear egon eta berriro ere, poltxikoz, pobre ginela oharu ginen urtea. Eskerrak pakearen urte bezala ere agertuko den historia-koliburu astunetan.

Pakean igaro ditzazuela festak eta berria etortzeko presarik gabe, ogiaren pare, egunean egunekoaz gozatu edo sufritu dezagula.\*

**Ba al dakizu azaroaren 20ko hauteskundeetako azpeitiko emaitzak udal-hauteskundeetakoak balira amaiurrek hamar zinegotzi izango lituzkeenla, EAJ-k sei eta PSOE-k bat?**  **Uztarrria**

## Zerrendak

**E**z dakizu zertaz jardun hilabete honetan eta zerrenda bat egin duzu hainbat gairekin: hauteskundeak, Corrugadoseko egoera, egoera politiko berria, bizimoduaren garestitzea, Palestinako egoera, zeure lan egoera, eta abar. Hala ere, ez dakizu nola heldu gai horiei. Betikoa ez duzu esan nahi, eta esan beharrekoak bestek zuk baino hobeto esan dituela uste duzu. Eta begiratzen diozu zerrendari, beste behin, eta irakurtzen dituzu gaiak, eta halako batean konturatzen zara begibistan zeneukala haria. Gai horiek guztiak hitz baten bueltan josiko dituzula erabaki, eta

zerrenda berria egin duzu: hauteskunde-zerrendak, Corrugadoseko zerrenda beltza, hildakoen zerrenda, preso daudenen zerrenda, erosketa-zerrenda, Gazako zerrenda, hezkuntza sailaren zerrendak.

Inguruan begiratu duzu gero. 2012an lagunartean egingo dituzuen afarien zerrenda topatu duzu, txukun-txukun plastifikatuta, eta lanean egin beharrekoen zerrenda. Baita aste honetako ikasleen zerrenda, lantokian falta zaizkigun gauzen zerrenda eta biharko bileraren gai-zerrenda ere. Telebista piztu duzu eta bukatzen ez den iragarki-zerrenda



eñaut frantsesena

ikusi duzu. Irakurri duzu Zilarrezko Lehen mailako sailkapen-zerrenda, Sindikatu Zaharrean kristalpean dagoen multa-zerrenda. Sana-gustineko mus txapelketarako izena eman duzu zerrendan. Eta iruditu zaizu bizimodua zerrendak egiten, zerrendetan sartzen eta ateratzen, nahita edo behartuta, pasatzen dugula. Iruditu zaizu badirela egon beharko ez zuketean zerrendak, baita geu zerrenda haietan sartuta gaudela ez dakigunak ere, eta aukeran gutxitxo betetzen ditugun beste batzuk ere bai. Gero, hurrengo hilabeteko jardunerako zerrenda prestatzen hasi zara.\*

 **kutxa**



**AIZPURU AUTOAK**

Landeta Auzoa - Tel.: 943 81 23 59

Faxa: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA

[aizpuru@aizpuru.net](mailto:aizpuru@aizpuru.net)

## ABENDUKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...



aitor gorrotxategi



### *Erronka lortuta, zorionak atte!*

**PAGOA EBAKITA.** Agian ez da etikoa familiko bati buruz hitz egitea baina lortu duenaren ondoren hitz batzuk esaten ausartuko naiz. Lehenengo aldiz jakin nuenean apustua egin behar zuela zoratuta zegoela esan nion eta jadanik martxan zegoela apustua eta ez zegoela atzera bueltarik komentatu zidan. Eguna iritsi, apustua egin, erronka burutu eta gainera irabazi. Ni hitzik gabe utzi nau. Zorionak atte!!



### *'Zorionak Pio, merezi duk'*

**LANGILEA.** Lan asko egin duen pertsona bati txalo saria eman diote eta pozten naiz. Pilar Azpitartek eman zion eta lan asko eginiko bikotea ekarrekin ikusi genituen. Han bertaratu ginen guztiak hunkitu gintuen eta badirudi gure herriak urte askotarako antzerkia izango duela.



### *Julian Barrenetxearen 25. urteurrena*

**ZORIONAK!** Badirudi atzo hasi zirela, eta begira 25 urte. Badakit une honetan ez duela izan duen kantari kopuru handiena, baina lerro hauekin jendea animatu nahiko nuke abestera. Herrian abesteko zaletasuna dago eta askotan uste dugu abesbatzetan eleizako kantuak

abesten direla, baina oker gaude. Giro aparta sortzen da talde hauen inguruan eta denetik abesten da, baita poteoa eginez ezagunak ditugun abestiak ere. Kontua ez da perfektu abestea, giro alaian ondo pasatzea baizik. Zorionak Barrenetxea eta jarraitu horrela!\*

## INKESTA

gabonetan zer:  
jolas-parkera ala  
zine ziklora?

 Ainitze Agirrezabala

### MIREN MASSO

12 urte



"Jolas-parkera joango naiz, lagunekin. Zinera joateko ohitura gutxiago dut, baina gabonetan joateko asmoa badut. Soreasan dugun antzokia Donostiakoa baino ederragoa da. Azkena ikusi dudana pelikula 'Phineas y ferb' izan da".

### INGE OIARZABAL

12 urte



"Pare bat egunetan jolas parkera joango naiz, eta zinera

joateko ohitura ere badut. Familian, eskiatzera joateko ere aprobetxatzen ditugu gabonetako oporrak".

### LURDES ARRIETA

12 urte



"Iaz zine-ziklora joan nintzen ama, ahizpa eta lehengusuarekin, eta aurten ere pelikula politik badaude joango naiz. Opor-egun asko ditugu eta gustura nago gabonak ailegatzeko".

### SARA SUDUPE

12 urte



"Urtero, garai horretan, Kanariar Uharteetara joaten naiz,

gurasoekin. Gainontzean, hemen nagoen egunetan jolas parkera joango naiz eta zinera ere bai, lagunekin".\*

## Kutsaduraren ondorioak

**D**uela hilabete batzuk irakurri nuen Azpeitia zegoela herri kutsatuen zerrendan, batez ere arnasten dugun aire poluzionatuaren eraginez. Gure herrian zirkulazio handia jasaten dugu, horrek jaurtitzaren duen karbono monoxidoarekin, galtzairuola handi bat bere isuriak airera botatzen dituena, pen-tsu fabrika kiratsa zabaltzen duena, Lapatx zaborte-gia eta abar. Orainsu jakin dugu Lapatx beteta dagoela, eta horrez gain beste bi konposta planta beharko liritekeela Gipuzkoan. Eta Lapurdiko Itsasu herriko zabortegira bideratu nahi dituztela zaborrak.

Beraz, ez da harrizkoa biztanle kopuru tasa altu bat minbizi gaitzak harrapatuta egotea, neu barne, eta, tamalez, kopurua gorantz doa. Gehitu horri asma eta biriketarik kaltetuak.

Konposta kutxa marroiek erdi hutsik jarraitzen dute, eta aurreko batean nioen bezala, janari hondakinak dira toxikoenak, besteak geldo edo inerteak dira. Uste dut Udalak gai hau serio hartu behar



### HIGINIO OIARTZABAL

duela eta neurriak ezarri, gaizki birziklatzen dutenei kutsadura tasa bat gehituz, adibidez. Poltsikoa ukitzea bezalako tresnarik ez dago denok 'kontzientziazteko', horrek mugiarazten gaitu. Galdera da: kutsatzea libre eta doakoa, ala debekatua eta arautua izan behar du?

Imanol Azpiroz San Markosekoak dio 'birziklatzea ezin da aukerakoa izan, errenta aitortpena aurkeztea aukerakoa ez den bezala. Betebehar bat izan behar du herritar eta erakunde guztientzat'. Bai betebehar bat zebrabidean, inor dabilenean, autoa gelditzea den bezala, TAO aparkalekuan ordaintzen den moduan, eta zirkulazio arauak errespetatzen ditugun eran, isuna eta puntu galerak ekidin nahi badira.

Gure eta ondorengoen osasunarekin ezin dugu jolastu, ezin dugu axolagabeak izan.

Lau urte bete ditut Uztarriako kolaboratzaile, eta agur esateko garaia dela deritzot. Gaizki esanak barka eta ongiak gogoan har. Agur eta ondo izan.\*

**Galdetzen hasita, Antzerki Topaketetako sarrerak aurrez salgai jartzea posible al litzateke, aurrerantzean?**  **Uztarria**

## Urak dakarrena

**B**atuetan paradisua apurtzen da eta gure mundua hodeiez estali. Une horietan hurbilen dagoena gaitza egiteko gai dela ikusten dugu eta mesfidantza, uholdea bezala, gure etxean sartzen da.

Besteetan, hodeiek uholdeak sortzean, itotzen gaituen isolamendua puskatzen du uraren indarrak.

Azaroaren 5eko gauean euria barra-barra ari zuen eta hurrengo egunean gure Azpeitia irla bihurtu zen. Etxearen atzekaldean ur-jauzi bat zegoela konturatu nintzanean Administrazioari deitu nion, konponketaren zain.

Zitzu bizian udaltzain bat zegoen atarian. Suhiltzaileekin ez nuen halako suerterik izan. Antza denez, eskualde osorako lau katu zeuden eta deitzen hasi ginenetik hiru orduz ailegatu ziren, etxe barruan ura sartzear zegoenean. Gainera, nahiz eta bonberoak borondate ona erakutsi eta ura bideratzeko ideia eduki, presaka etxetik joan zirenean ura gelditu zen.



### MIREN ALCEDO

Baina Shangri-Lan –edo Azpeitian– bizi naizenez, di-da batean 6 laguneko taldea terrazan zegoen ura bideratzen eta beste 10 pertsona etxe barruan ura ateratzen. Isilpean azaldu eta laguntzen hasi ziren. Batzuk ezagutzen nituen, besteak egun horretan aurkeztu ziren. Auzolan ederra egin genuen. Izan ere, auzokideen laguntzarik gabe etxerik gabe ere egongo nintzateke gaur.

Orain, Hirigintza eta Gizarte Zerbitzuaren bitartez, Administrazioa erantzuten saiatzen ari da eta uholdeak berriro ez pairatzeko Udalak gaizki eginda zegoena konpontzeko asmoa erakutsi du, zubiak eraikitzeko garai honetan kanalizazio onak egitea ez ahaztuz.

Etorkizunari begira, galdera bat datorkit burura: ea zer gertatuko den hurrengoan, arlo publikoan murrizketen politikak jarraituz gero. Honetan herri erantzuna auzolana izan da, gure esparru txikitik besteari laguntzera ateratzen gaituena.\*

OTSOBELTZ



andoni salegi

hemen dala, hemen dala,  
badator, burue!! bultze !

BEEEEE  
BEEEEE !

Jarraituko du...



# bertan

azpeitikomerkatarielkarterea

# gabonetan

**2000€ko erosketa txeekean zozketa**

abenduaren 23 **500€ + 200€ + 100€ sariak**  
abenduaren 30 **500€ + 200€ + 100€ sariak**  
urtarrilaren 5 **500€ + 200€ + 100€ sariak**



[www.azpeitibertan.com](http://www.azpeitibertan.com)



# Urak handi

Atertu gabe bota zuen euria azaroko lehen asteburuan, dezenteko kalteak eraginez. Uholdeetako argazkiekin bilduma osatu du Uztarriak 📎 Ainitze Agirrezabala





### ▼ ETXETIKAT.

*Ura eta sua gerritik behera!*, dio esaerak. Bada, Madalena auzo inguruan ibaiak gainezka egin zuen igandean, eta familia bat etxetik atera behar izan zuten. Argazkian, aitona bat errepedea igaro nahian, ura ia belauneraino duela. Argazkia: Julene Frantzesena.



### ▲▼ TRAFIKO ARAZOAK ETA BIDE MOZKETAK.

Hiru hamarkadako uholde handienak eragin zituen denboraleak, eta arazo ugari sortu ziren nonahi, errepedeetan sortu ziren ur putzu edota luizien eraginez. Landetan eta Eskustan ere urak bidea erabat oztopatu zuen eta, ondorioz, ibilgailuentzat bidea itxi egin zuten. Argazkiak Urtzi Oteizarenak dira.





### ▲► UHOLDEAREN ARRASTOAK.

Barealdia heltzean urak harrapatutako bazterrak lohiak eta zakarrek estalita agertu ziren. Azpeitia eta Lasao arteko bidegorrian baranda mugitu zuten uholdeek, eta erreka bazterrak zerri eginda geratu ziren. Argazkiak: Ane Aranburu.

### ► UROLA BERE BIDETIK ATERATA.

Euri jasek amaiezinak ziruditen, nahiz eta egun gutxitan, eguzki goxotan zeuden Azpeitiko txokoak. Urola ibaiak gainezka egin zuen, eta Madalenako ospitale inguruak urak hartu zituen. Argazkia: J. Frantzesena.



### ▲ BARRURAINO.

Enparan kaleko lurpeko garajeak ere urak hartu zituen. Uraren maila belauneraino heldu zen. Argazkia: J. Frantzesena.





### ▲ **ARAZO ASKO ERREPIDEAN.**


Loiolako hiribidean eta Olazko biribilgunean putzu handiak sortu ziren, etengabeko euriteen eraginez, eta urak erabat oztopatu zuen Azkoiti-Azpeiti arteko trafikoa. Argazkia Ane Olaizolak ateratakoa da.

### ▼ **LUIZIA.**

Nuarbeko Olasagastieta baserriaren aurreko pendizean sekulako lur-jausia izan zen eta baserriaren ateraino ailegatu zen lurra. Argazkia: Eli Aizpuru.



# Kantuan, mende laurdena

Terapia da zenbaitentzat; eguneroko kezkak ahazteko balio die besteei. Julian Barrenetxea Abesbatzak eta kantuak elkartzan ditu guztiak.   Ainitze Agirrezabala

**A**zkoitiko koroak bandarekin eta dantzarekin elkarlanean egin zuen jaialdia ikusita piztu zitzairen Azpeitian korua sortzeko harra Jose Luis Frantzesena *Schubert* eta Pedro Illaramendiri. 1985a zen. "Luis Iruarrizagaren minueta entzutean, Azpeitian halako zeozer egitea ederra izango zela pentsatu genuen", hasi da kontutan Frantzesena.

Illaramendiren esanetan, urteak ziren abenduaren 24an jaiotzarekin kantuan irtezen ez zutela, eta antolatuz lehen ekitaldia hura izan zen. "Zerrenda bat osatu eta deialdi bat luzatu genuen, eta 80 lagun bildu ginen. Hasieran, sindikatu zaharrek pasiluetan eta eskaileretan entseatzen genuen". *Schubert*-ek gogoratzen duenez, ez zeukaten "kanturako materialik eta Migel Mari Azpiatzuk zeukan dena eman zigun. Herrian hala esan ziguten batzuek: *hamabost egun iraungo dik horrek*". "La lehenengo urtean, 1986an, ikusi egin behar da honek [*Schubert*-ek] zenbat pieza zeuzkan konposatuta –dio Illaramendik–. Apuntatuta dauzkat: 22 elizakoak, profanoak beste 24... Orduan, ko-

taldea  
sendotu eta  
abesbatzaren  
etorkizuna  
bermatzeko kide  
berrien premia  
du koroak

ruan hasteko ez genuen eskatzen solfeorik. Berdin zitzaion, borondatea edukitzea zen kontua. Eta, hor hanka sartu genuen". "Oso polita zen kanta, baina zailenarekin hasi ginen; Iruarrizagaren minueta batekin", gaineratu du *Schubert*-ek. "Eta, orduan, 80 izatetik 60 bat izatera pasatu ginen".

## Ikastaroak, ezinbestekoak

Zuzendariak ere ogibidea ikasi egin behar izaten du, eta "ikastaroak ikastaroen gainean

egiten" zituztela kontatu du Frantzesenak: "Hondarribiara, Barriara, Leridara joaten ginen, asteburua pasatzera. Kontserbatorian ere lau urte egin nituen". Jaime Amenabarraren esanetan, "zuzendariaren zeregina garrantzitsua da oso. Jendearen artean badago uste bat: zuzendariaren figura zeozer dekoratiboa dela". Illaramendik adierazi duenez, "bakoitzak bere korua zuzentzea garrantzitsua" zela esan zieten ikastaroetan, eta hala sortu zituzten umeen eta gazteen koroak. Gero, 2000. urtean, *Schubert* organista hasi zen Azkoitian, eta Amenabarrek hartu zuen haren lekukoa.

Sorreran, 80 kide izatera iritsi baziren ere, egun jende faltan daude. *Schubert*-en esanetan, "prozesu bat egon da. Egun, musikari eta solfeoari dagokionean, jendeak lehengoak baino gehiago daki, baina taldeko konpromisorik ez du hartu nahi. Musika eskolan umeen koru oso ona dago, baina adin batera ailegatu, eta han geratzen dira, gaseosa bezala, ur eginda. Bizimodua bera aldatu da".

Illaramendik ere pena hartzen du. "Ondo akordatzan naiz koruan nola sartu nintzen.



Goian, ezkerretik hasita: Maria Dolores Udabe, Arantxa Madina, Arantxa Aierbe, Pilar Martinez eta Antton Martinez. Behean, makurtuta, Joxe Luix Alberdi eta Olatz Agirre.

Jose Mari Altunak sartu ninduen, derrigorrean, negar batean. Eta, urte guzti hauetan kantuar zenbat gozatu gaituen, zenbat egun on pasatu ditugun kantuan, zer zirrara eta emozio sentitu dugun barnean, zenbat lagun egin ditugun... Orduan olatua alde zegoen, orain kontra dagoen bezala". Amenabarrek azaldu du "eskaintza zabaldu" egin dela. "Non daude musika, solfeo, korala... urteetan ikasi duten belaunaldi haiek denak? Ikasketak edo beste arrazoi batzuk medio, utzi egin dute eta hor etena dago. Kontua da, gainera, egun, zerbait egin nahi duenak jarduera asko dituela aukeratzeko: yoga, kirola...".

Abesbatzaren etorkizuna sendotze aldera, "hainbat froga egin" dituztela dio Amenabarrek: "plan desberdinak hasi gara egiten: beti elizan kantatu beharrean, hortik ere irten egin dugu. Agian, lau ahotsetara kantatuz ez dugu erakartzen, eta anplifikatutako gauzak egiten ere hasi gara. Karnabaletan mozorrotu, udan bidaia bat egin... Ikuslegoari asko gustatzen zaizkio egiten ditugun aurrerapauso horiek, baina ez dira gerturatzen korura, parte hartzera. Hasten dena, ordea, gustura etorri ohi da; jende berria ezagutu, entsegu ondorenean elkarrekin kafea hartu...". Schubert-en esanetan, "lan asko du, baina koruaren mundua zoragarria da, eta merezi du".

### Kantuan, sorreratik

Momentu honetan, Julian Barrenetxeak helduen abesbatza baino ez du, eta taldean 23 kide dira. Haietatik zazpi –Arantxa Madina, Pilar Martine, Maria Dolores Udabe, Arantxa Aierbe, Antton Martinez, Olatz Agirre eta Jose Luis Alberdi– mende laurdena bete dute aurten, koruan kantatzen hasi zirela.

Duela 25 urte, Gabon egunean jaiotzarekin kantuan irteteko antolatuta zuten ekitaldian 'egin zuten debuta' gehienek, eta kontatzen dutenez, umetatik dute kanturako grina. Madinaren esanetan, "zaletasuna familiaratik" dator. Niretzako terapia da korura etortzea. Oso ondo sentitzen naiz; bestela ezagutuko ez nuen jendea ezagutzeko parada izan dut".

Agirrek adierazi duenez, "entsatzera joanda egunari bukaera ederra ematen diogu.

**Amenabar**  
DENDA  
gortinak, ohazalak,  
edreoi nordikoak ...  
Eliz-kale, 32-behea - Tel/Fax: 943 15 06 97

**AZKOITIA**  
ERLOJU  
KONPONKETAK  
Arana, 5  
AZPEITIA Tel: 943 81 47 12

Euskal Herria, 34  
20730 AZPEITIA  
Tel.: 943 15 16 40  
**Ekain**  
Larrialdiak:  
943 15 16 40  
ALBAITARI KLINIKA

**IRENE ALTUNA**  
LORADENDA  
Lorola-Bide, 26 Tel. 943 81 51 87  
www.ialtunadenda.com



1



2

1. Erroman izan ziren abesten.
2. Abesbatzako taldekideak.
3. Abenduaren 24an jaiotzarekin kantuan ateratzen urteak daramatzate.

25 urte talde baten baitan kantuan urte asko da; talde ederra dugu eta norbera asko aberasten du horrek". Pilar Martinez, ostera, santa eskean atera zen aurreneko kantuan. "Baserritar jantzita, egundoko ilusioarekin irten nuen. Harrezkero, egun ederrak pasatu izan ditugu, topaketetan eta... Betidanik gustatu izan zait musika eta kantatzea. Umetan udako oporrak pasatzera Deustura joaten nintzen, izebaren etxera. Batek pianoa jotzen zuen, beste batek bibolina... Ama zenak ere dua oso ondo egiten zuen".

Zuzendariak "gauza dela esaten dion artean jarraitzeko asmoa" duela dio Udabek: "Taldea anitz batean parte hartzen duzu, alaitasun handia izaten dugu eta, gainera, herriari kultura mailan ekarpena egiten diozu. Oso gustura etortzen naiz ni. Noski, gustatzeaz gain, talde batean zaudenez, ardura ere izan behar duzu, eta gizonezkoek horretan erraza go huts egiten dute. Gure belaunaldiko emakumeentzat, gainera, lotura polit bat izan da koruarena. Ni etxeoandrea izan naiz, eta entseatzera joaten hasi nintzenean, senarraren eta bion artean seme-alaben ardura banatze hori oso polita izan da. Abesbatzan parte hartzea animatzen dut jendea, batik bat gizonezkoak, gutxi baititugu taldean".



3

Aierbe jaiotzez zegamarra da, eta gaztetatik aritu da kantari: "Azpeitira ezkondu nintzenean zerbait botatzen nuen faltan, eta hala hasi nintzen. Gozamina da niretzako. Orain dela 23 bat urte sekulako elurtea egin zuen, eta bota handiak jantzita etorri nintzen gaueko 21:00etako entsegura, Xanjuandegitik. Senarrak hala esan zidan: 'orain konbentzitu naiz kantatzea gustatzen zaizula'. Eta, noski, ondo kantatzeko oso garrantzitsua dira aho-tsa eta bihotza".

Antton Martinez ere txikitatik dabil kantuan. "Tipleetan hasi nintzen, eta hura desgitean Olatzko koruan jarraitu nuen. Kantuan eginda erlaxatu egiten naiz. Hainbat herritako koruekin harreman ona egin dugu, eta gainontzean emanaldi mordoa: Itsasirekin, Sahatsarekin, txistulariekin, dantzariarekin... Kan-

pora ere joan izan gara eta oso ondo. Halere, esango nuke abesbatza herrian ez dela behar bezala preziatzen. Tartean behin, baten batek esaten dizu 'zuek duzue meritua', baina eskaintzen ditugun saioetara askotan etxeoak bakarrik etortzen dira".

Alberdik ere dio "betidanik oso kantuzalea" izan dela. "Parrokian hasi nintzen aurrena, Olatzko koruan gero, eta 15 urterekin laga egin nuen. Gerora, lantegiko batek animatuta hasi nintzen Julian Barrenetxean. Ni tenorea naiz, eta horren inguruko adarjotzeak entzun behar izaten ditut lagunengandik. Abesbatzara joan, ikusi eta orduan hitz egiteko esango nieke. Kantatzea alaitasuna da niretzako eta energia txarrak kantua bidez kanporatzen ditut. Eguneroko kezka txiki horiek ahazteko balio dit".

# Harrobia deseginda

**Julian Barrenetxea Abesbatzako umeen eta gazteen taldeak orain hamabi urte inguru desegin ziren, elkarren guztiz kontrako arrazoiak medio. Etorkizunean loratuko ote dira berriro?**

**J**ulian Barrenetxea Abesbatza 1986an sortu bazen, umeen taldea hurrengo urtean, 1987an, loratu zen, eta gazteena 1989an.

Rebeka Larrañagak eta Nagore Illaramendik umetatik kantatu izan dute; tipleetan aurrena, Anxietia musika eskolan ondoren, eta Julian Barrenetxean gero.

17 urterekin hartu zuen umeen taldearen zuzendaritza Larrañagak, eta 16rekin gazteena Illaramendik. Bi taldeak sendotzen joan ahala, 1995-1996 urteetan 'urrezko garaia' heldu zitzairen. Larrañagaren esanetan, urte haiekan "sekulako boom-a" eman zen. "47 ume zuzentzera ailegatu nintzen; txikiena lau urtekoa nuen". Sorreran, gazteen taldean "mordoxka, 30 lagunetik gora" zirela dio Illaramendik.

## Bi taldeak bertan behera

Elkarren guztiz kontrako arrazoiak medio desegin ziren bi taldeak. Larrañagaren esanetan, "lan kontuengatik kanpora joan beharra izaten nuen askotan, eta bi gau-



Goiko argazkian, Rebeka Larrañaga zuzendaria umeen taldeko ikasleekin. Beheko argazkian, Nagore Illaramendi gazteen taldea zuzentzen.

zak ez ziren bateragarriak. Konstantzia batekin irakatsi nahi nien, baina erdietan neuk huts egiten nuen. Ez zegoen hala segitzerik, eta pena handiarekin, baina uztea erabaki nuen, 1999an".

Orduan, Jaime Amenabarrek hartu zuen taldearen ardura beste norbait bilatu artean; gero, Olatz Pratek hartu zuen erreleboa, baina beste ardura batzuk tarteko utzi egin zuen. "Taldea desegin zela jakin nuenean bihotz ondokoak eman zidan. Arrazoiak ez zen taldea osatzeko umeak falta zirela; arduraduna falta zen".

Gazteei zegokionean, desegitako arrazoiak justu kontrakoak izan zen, Illaramendik dioenez. "Ikasleak, adin horretan, unibertsitate-ikasketekin hasi eta asko kanpora joan ziren bizitzera, eta entseguetara huts egiten zuten. Kontzertuak ezin ziren fundamentuz prestatu eta, azkenean, abesten jarraitu nahi zutenei helduetara pasatzeko aukera eskaini zitzairen".

## Etorkizunera begira

Ofizios irakaslea da Illaramendi, eta duela hamar urtetatik umeen abesbatza zuzentzen du, eskolaz kanpoko ekintza bezala. "Aurten, 45 ikasle ditut. Gabonetan eguneko zentzura goaz abestera, eta ilusioz ari gara prestatzen. Pena da, ordea, 10-12 urte bete arte abesten dute nirekin, baina gero ez dute non jarraitu. Nola antolatuz dezakegu hori?".\*

Servicios  
con calidad

AENOR



Servicio  
Certificado

Atención sanitaria



horzkari

horts osasun klinika

zure lasaitasunerako

iberotarren plaza 4 behea

20730 azpeitia gipuzkoa

t. 943 81 44 50 • f. 943 81 50 52

Osasun Arreta Ziurtagiria duen Euskal Herriko lehenengo horts klinika

[www.grupohorzkari.com](http://www.grupohorzkari.com)

# Libre, libreegi

Soreasuko lur-azpiko aparkalekuaren erabilpen maila oso txikia da. Udalari kontuak ez zaizkio ateratzen eta “aldaketak aztertzen” ari dira. 📌📍 Mailo Oiarzabal

**D**atorren urtarrilean urte eta erdi beteko da Soreasuko lur-azpiko aparkalekua ireki zutenetik. 2010eko uztailaren 5arekin jarri zuten martxan aparkaleku publikoa. Aurreneko ia bi hilabeteetan –2010eko irailaren 1era arte– doan erabili ahal izan zen, eta harrezkero ordaindu beharra dago.

Udalarena da Soreasuko antzoki eta kultur erabilerrako eraikin berriaren proiektuan txertatuta eraikitako parkina eta, inguruko zenbait herritan dauden antzeko aparkalekuekin alderatuta, erabiltzaileentzat duen kostua merkeagoa dela esan daiteke; egun osoan autoa bertan uztearen kostua ez da 10 eurora iristen. Bi solairu ditu Azpeitiko lur-azpiko aparkaleku bakarrak. Lehen solairuan daude txandakako aparkalekuak; 109 plaza daude. Bigarren solairuan, berriz, aparkaleku pribatuak eta trastelekuak egokitu zituen bere garaian Udalak. Aparkalekuak 131 dira guztira solairu pribatu horretan eta 27 trasteleku daude. Hasierako fasean, horiek erosteko aukera Alde Zaharreko bizilagunei eskaini zitzairen; ondoren, eta gaur egun ere bai, salmenta eremua gainerako bizilagunentzat ere zabaldua gelditu da. Une honetan 131tik 44 aparkaleku salduta daude, eta beste 25 alokatuta; trastelekuei dagokienez, zazpi gertzen dira saltzeko.

Herriko Alde Zaharrean eta inguruetan zeuden edo egon zitezkeen kotxeak aparka-



Soreasuko lur-azpiko aparkalekurako sarbidea erakusten duten karteletako bat.



tzeko arazoei aurre egiteko eraiki zuten aparkalekua Soreasun. Beharrezkoa zelako, itxuraz. Eguneroko eta salbuespen gutxi alde batera utzita erakusten duen itxura ikustea besterik ez dago, ordea, kotxezaleek Soreasuko lurpeko aparkalekuari bizkarra ematen diotela antzemateko. Esku bakarreko hatzekin kontatu daitezke askotan han aparkatutako autoak.

Alde Zaharrera doazenentzat ezin hobeto kokatuta egoteak, aurreneko ordu eta erdian kotxea uztea doan izateak... ustezko abantailak hor egonda ere, oso gutxi dira Soreasuko parkin berria erabiltzeko ohitura dutenak. Itxurak erakusten duena datuek baieztatzen dute: hileko 500 eta 600 euro artean biltzen ditu Udalak aparkaleku publikotik. "Defizitarioa da, eta horregatik ari gara aldaketak aztertzen", azaldu du Aritz Epeldek, Udaleko Zerbitzu Orokorretako batzordeburuak.

### Hipoteka oinordetzan

Ikusitakoak ikusita lur-azpiko aparkalekua beharrezkoa al zen galdetuta, aurreikuspe-



nak behintzat bere garaian ez zirela ondo egin dio Epeldek: "Nik ez dakit bideragarritasun ekonomikoaren azterketa egiterakoan behar zen bezala egin al zen. Dagoen baldintzetan, behintzat, ez da oso egokia. Nola aldatu begiratzen ari gara, alternatibak aztertzen ari gara, arazo horri aurre egiteko"

Aparkalekuaz ari da Epelde, baina ez aparkalekuaz bakarrik. Soreasuko proiektuak bere osotasunean izan duen kostua, eta aurreikusitakoaren arabera osatzeak izan dezakeenak, buruhauste bat baino gehiago eragin dizkio eta eragiten dizkio Udalarari. "Azken batean guk –gaur egungo udal gobernuaz ari da– jaso dugun oinordetza bat izan da. 14 milioi euro gastatuta daude hor ja, aparkalekua eta eraikina biak kontuan hartuta; 4 milioi inguru garajeen eta 10 pasa gainekoan. Aurreikusita zegoena osatzeko –auditorioa bakarrik dago osatuta–, 20-21 milioi euro izango litzateke gastatu beharrekoa; hau da, 7 bat milioi euro faltako lirateke hori dena pentsatzen zen bezala jartzeko", azaltzen du, kontuak eginez.

Falta den diru hori ez dago, ordea. Eta krisi egoera kontuan hartuta, epe motzean eskura izango dutela pentsatzeko arrazoi handirik ez dute ikusten Udalean. "Hipoteka bat da, kasu honetan, jaso dugun herentzia. Eta kontatu gabe eraikin horrek daukan mantentzeak, eta kontuan hartuta, proiektatuta dagoenarekiko oraindik ia ezer ez dagoela martxan jarrita. Dena martxan jartzen denean, garbiketa, energia, pertsonala... Izugarriko gastua izango dela aurreikusten dugu".

Eta horretan ari dira Udalean, kontuak egiten. Soreasu hor dago eta, hipotekak hipoteka, erabilpena eman beharko zaio. 2006an aurkeztu zuen orduko udal gobernuak Soreasurako kultur eraikin berriaren proiektua. Hasierako egitasmo hartan, herriko kultur taldeen egoitzak eta lanerako espazioak Soreasun kokatzea aurreikusi zuten. "Aztertzen ari gara pausoz pauso eta pixkanaka talde batzuk hor sartzen joateko aukerarik ba al dagoen; aurrekontu horiek aztertzen ari gara", dio Epeldek.

### Irtenbideak aztertzen

Aparkalekuaren erabilpen eskasera itzulita, "aldaketak aztertzen" ari direla esan du Zerbitzu Orokorretako zinegotziak. Momentuz ez dute neurri zehatzik esku artean, baina Alde Zaharreko eta Soreasu aldeko bizilagunekin formulak aztertzen ari da Udala, baita Alde Zaharreko merkatariekin ere, lur-azpiko parkinaren erabilpena bultzatzeko.\*

### III DATUAK

**0,008333** euro Hori da Soreasuko aparkalekuan 91. minutitik aurrera kotxea uzteak minutuko daukan kostua. Aurreneko 90 minutuak (ordu eta erdi) doan dira.

**15.258** eurokoa da une honetan Soreasun aparkaleku bat erosteak duen prezioa. 131tik 44k dute une honetan jabea eta beste 25 alokairuan hartuta daude. Horrenbestez, 61 hutsik daude

**510-55** euro. Bigarren solairuan urte osorako (510 euroren truke) ala hilabeteka (55 euro ordainduta) alokatu daitezke aparkalekuak..

III "Nola aldatu begiratzen ari gara, alternatibak aztertzen ari gara, arazo horri aurre egiteko"

ARITZ EPELDE  
zinegotzia

|||alaitz olaizola|||



|||gurutze eizmendi|||

# Hi eta ni: bi

**A**laitz. Honetara ere animatu gaitun. Orain, asmatzen lanak...

**Gurutze.** Halaxe dun, bai. Taula gainean hainbeste urtean ari gaitun, eta honetan ere ahaleginduko gaitun.

**Alaitz.** Konturatu al haiz? Egunerokotasunean elkarri zuka egiten zionagu, eta hortik kanpo noka. Oraingoan ere, halaxe eman zionagu hasiera.

**Gurutze.** Elkarri noka edo zuka noiz egin ederki bereizten dinagu. Hik esanda bezalaxe egunerokotasunean zuka, eta elkarri zerbait idatzi behar diogunean noka. Dela mugikorreko mezua, dela notatxo bat... Xelebrea dun, baina horrelaxe ateratze zaigun!

**Alaitz.** Kuriositate bat, Gurutze: Munduko txokolaterik garestienak NOKA izena omen din. NOKA markakoa dela, alegia.

**Gurutze.** Noka emakumeoi zuzentzerakoan egiten denez, normala garestiena izatea! Gizona zeoak ere, emakumeoi, txokolatea bezala gozoki hitz eginez gero askoz hobe!

**Alaitz.** Baina kontuz! Garestiena izateak ez omen din beti hoberena denik esan nahi! Gainera, txokolateak gozoa bezain garrantza izatea zeukan, eta nik aukeran garrantza nahia-go, gozo puntuarekin, beltz-beltza. Tokarena are eta xelebreagoa dun. Beste gauza batzuen artean, TOKA pintura marka bat dun!

**Gurutze.** Aizan, hi, ez zekinat nondik nora dakinan hainbeste txokolatei eta pinturei buruz. Ez ezan gaizki hartu, baina gauza bat bururatzen zaidan: Txokolate mordo bat jateaz gain, pintaketan jo ta ke aritzen haizela!

**Alaitz.** Pinturarekin asmatu dun, txokolatearekin ez hainbeste. Agian ez dun jakingo, baina biak ditun lasaigarriak.

**Gurutze.** Ederki nagon orduan! Nik ez bata,

|||ALAITZ. “Argi zagon: Hiri pintura eta txokolatea, bost axola!”

|||GURUTZE. “Urte batzuetara hasiko naun NOKA eta TOKA probatzen”

ez bestea! Beste metodo bat erabiltzen dinat lasaitzeko, eta ez zagon batere gaizki. Ez dun “marka” ezaguna, baina guztiok ezagutzen dinagu. Dena dela, gero esango dinat.

**Alaitz.** Hori seguru! Kar, kar! Plan borobila-go bat proposatzen dinat: TOKAekin pintatu, NOKAekin gozatu, eta “marka” ezezagunarekin ospatu. Jardutea bezalakorik ez zagon gustua hartzeko!

**Gurutze.** Jardun eta jardun ikasi egiten omen dun, ez al da hala? Jesus, Maria eta Jose, hasiera ederra eman zionagu!

**Alaitz.** Argi zagon: Hiri pintura eta txokolatea, bost axola!

**Gurutze.** Bai, hi. Urte batzuetara hasiko naun NOKA eta TOKA probatzen. To! Urte berri on!\*



## IDOIA GARAIZABAL Zestoako Bainuetzeko zerbitzu termaleko eta kalitatearen zuzendaria

Euskadin 273 establezimenduk jaso dute turismo arloko enpresen zerbitzua, instalakuntzak eta gestioa zertifikatzen duen Kalitate Turistikoaren Q ziurtagiria. Jardunbide egokirako programan, Kalitate Turistikoarekin Konpromiso Diploma duten 494 establezimendu daude. Bereizkuntzak, formakuntza eta hobekuntzarako konpromisoa, establezimenduen kudeaketan dedikazioa eta zorroztasuna errekonozitzen ditu, kalitatearen hobekuntzarako planen bitartez. Helburu nagusia etengabeko hobekuntza da, bezeroaren zerbitzura.



### Zergatik egin duzue turismoaren sektorearekin lotutako sistema eta kalitate-programetako batzuen aldeko apustua?

ISON zertifikatutako gestio sistema izan arren, espezifikoki turismo kalitate sistema batean zertifikatuta egoteak bai guri eta baita bezeroei ere saltzen dugun produktuaren eta bezeroak eskatzen duen zerbitzuaren gaineko informazio zehatzagoa eskaintzen digu.

### Zertifikatutako Kalitate Turistikoaren Q-a bezalako kalitate sistemak nolako abantailak ekarri dizkio zure erakundeari?

EISON zertifikatutako gestio sistema izan arren, espezifikoki turismo kalitate sistema batean zertifikatuta egoteak bai guri eta baita bezeroei ere saltzen dugun produktuaren eta bezeroak eskatzen duen zerbitzuaren gaineko informazio zehatzagoa eskaintzen digu.

**Ezarpenaren ondorioz nolako hobekuntzak izan dituzue, barne funtzionamenduari begira? Eta kudeaketa gaietan? Eta azpiegitura**

### kontuetan?

Orokorrean, sailen arteko koordinazio hobea dugu, barne komunikazioari esker; eta, kalitate bilerekin, sailtako errealitateaz gehiago jabetu gara. Azpiegiturei dagokienez, etengabeko hobekuntzak, gure bezeroen gogobetetze inkestak eta barne eta kanpoko auditorien emaitzek ematen ditugute behar dugun informazioa epe motzera edo luzera inbertsioak egiteko orduan.

### Zein dira bezeroaren asebetetzean zuzenean eragina izan duten hobekuntzak?

Zerbitzuen kalitate kontrola hauen prestaziorako bermea da eta bezeroek horrela ulertzen dute. Hor sartu ditzazkegu zerbitzuen segurtasunarekin lotutako guztia (arlo bakteriologikoa, balneario eta sukaldaritza zerbitzuak, bezeroaren jabetza) establezimenduko zerbitzu guztien gestio informatizatua.

Eusko Jaurlaritzak eta Turismoaren Euskal Agentziak, Basquetourrek, Euskalitekin lankidetzan, behar dituen tresnak eta laguntzak ematen dizkiote enpresaburuari, enpresa lehiakorragoa izan dadin, ondorengo programa hauen bitartez:

**Jardunbide egokirako programak:** Helburua enpresarioen "profesionalizazioa" eta jomuga konzientzia sortzea da. Euskadin Kalitate Turistikoarekin Konpromiso Diploma duten 494 establezimendu daude.

**Kalitate Turistikoaren Q-a programa:** Bezeroen itxaropenak betetzea eta asebetetzea bermatzen dituen programa. Euskadin 273 establezimenduk jaso dute Kalitate Turistikoaren Q-a bereizgarria.

**EFQM Bikaintasun eredu:** Erakundeek kalitatearekin bikaintasun mailaraino igotzea proposatzen dien programa. Eredu honetan parte hartzen diharduten 14 establezimendu daude Euskadin.

### Zer esango zenieke turismo arloko profesionaleri Kalitate Turistikoaren Q-a ezartzera animatu daitezten?

Zerbitzu prestazioaren kalitate sistema honek gure egoeraren aurreko eskariaren bilakaera zehazten ahalbidetzen digu eta, horrela, gure bezeroen beharrei aurre hartzen.

### Beste enpresari batzuei kalitate sistema zertifikatua-rekin lan egiteko gomendatuko zenieke?

Noski! Hasieran lan erantsia dirudienaren emaitzak epe laburrean nabari daitezke.

### Kalitate Turistikoaren Q-a prozesuak zure erakundearen kokatze lehiakorragoa ahalbidetzen du?

Gaur egun oso zaila da sektorean lehiatzea zertifikatutako kalitate sistema izan ezean.

### Kalitate Turistikoaren Q-aren kudeaketa prozesuaren barruan landutako eta ezarritako eskumenen artean zeintzuk azpimarratuko zenituzke garrantzitsuen edo erabilgarrien modura?


Gure zerbitzuen Diseinu eta Garapen arloa, asko harrituta lagatzen dituen, hedatuago baitago objektuen fabrikazioarekin lotzen duen ideia zerbitzuenarekin lotzen duena baino.

### Kalitatearen kultura zure erakundearen bultzatzeko nolako aldaketak sartu dituzue edo sartzeko asmoa duzue?

Etengabeko hobekuntza taldeak dihardugu garatzen, prozesuen arabera banatuta, hainbat sailen parte-hartzearekin; eta batzorde birtualak ere garatzen dihardugu. Azkenik, formazio ikastaroen balarapena egiten dugu denbora errealean, intranetaren bidez, hartzaileen zein arduradun zuzenean eskutik.

**Jarri kalitate turistikoaren Q-a zure establezimenduan**  
94 607 75 86 - 94 404 74 70  
[www.turismoa.euskadi.net](http://www.turismoa.euskadi.net) / [www.euskalit.net](http://www.euskalit.net)

# Kantaldia, Lete gogoan

Pier Paul Berzaitz, Eñaut Elorrieta, Petti, Alex Sardui, Anje Duhalde eta Arantxa Irazusta ariko dira, besteak beste, hilaren 23an, eta denek Leteren abestiak eskainiko dituzte.  Ainitze Agirrezabala

**P**oeta eta kantariaren heriotzaren lehenengo urteurrenean, haren omenez kontzertuaz gozatzeko aukera izango da hilaren 23an, Izarraitz pilotalekuan, 22:00ean hasita.

Leteren bizitzan kantariarekin bat egin zuten hainbat abeslarik, musikaririk eta idazlek poeta oiar-tzuarraren abestiak eta poesiak ekarriko dituzte gogora.

Pier Paul Berzaitz, Eñaut Elorrieta, Petti, Alex Sardui, Anje Duhalde eta Arantxa Irazusta ariko dira, besteak beste.

Musikariak, berriz, ondorengok izango dira: Karlos Gimenez pianoan, Joxan Goikoetxea esku-soinuarekin, Xanet Arozena gitarrarekin, Txema Garces baxuarekin, Luis Fernandez bibolinarekin eta Beñat Serna gitara elektrikoarekin.

## III DATUAK

III **Zer.** Xabier Lete gogoan kantaldia.

III **Eguna.** Abenduak 23 (ostirala). III **Ordua.** 22:00.

III **Sarrera.** 15 €

III **Tokia.** Izarraitz pilotalekua.

III **Antolatzailea.** Azpeitiko Udala + AM Promotora.

Bi orduko kantaldia izango da, eta Noel Elorgak aurkeztuko du. Sarrera hamabost euro ordaindu beharko da, eta honako lekuetan erosi ahalko da, Azpeitian: Sanagustin kulturgunean, Pastorkuan, Ametsa taberan, ISB tabernan, Eguzkitzan eta Etxe Zurin. Azkoitian: Etxe Aitzen, Iratzar liburutegian, Ttakun tabernan, Zurt tabernan. 'www.kutxa.net'-en ere eskuragai daude.\*

## III XABIER LETEREN OROIMENEZ

**2** orduko saioa. Pier Paul Berzaitz, Eñaut Elorrieta, Petti, Alex Sardui, Anje Duhalde eta Arantxa Irazusta ariko dira, besteak beste.

**15** euro sarrera. Egunean bertan leihatilan ez ezik, herriko hainbat tabernetan ere eskuragai daude sarrerak.\*

## III BESTERIK

### 1 Lagun Onaken mendi astea

Hiru emanaldirekin gozatzeko aukera izango dute mendia gustuko dutenek: 'Muturreko eskia Pirinioetan', Fidel Mendiak eskainita; 'Gasherbrum I, neguko expeditioa', Alex Txikonon eskutik; eta 'Munduan zehar eskalatzuz', Mikel Ajuria Pisonekin.

III **Eguna.** Abenduak 13, 14 eta 15 (asteartea, asteazkena eta osteguna). III **Ordua.** 21:00.

III **Tokia.** Lagun Onak M.B.-ren aretoa. III **Antolatzailea.** Lagun Onak M.B.

### 2 Santo Tomas eguna

Urteroko txorizo eta talo postuez gain, pilota partidak izango dira; XXIX. Antzerki Topaketetako sari banaketa; udazkeneko azoka berezia eta dantza suelto txapelketa, Sanagustinen.

III **Eguna.** Abenduak 21 (asteazkena). III **Ordua.** Egun osoko egitaraua.


### 3 Txapelen omenezko saioa

Sei bertsolari entzuteko aukera izango da, herritarrak nahiz kanpotik etorritakoak: Beñat Lizaso, Jokin Uranga, Beñat Gaztelumendi, Andoni Egaña, Maialen Lujanbio eta Uxue Alberdi.

III **Eguna.** Abenduak 30 (ostirala). III **Ordua.** 22:00

III **Tokia.** Soreasu antzokia.

III **Antolatzailea.** Erriarraitz.\*



Poeta eta kantariaren heriotzaren urteurrenean, haren omenezko kantaldia eskainiko dute, Izarraitzen.

III Azpeitiko ekimenez informazio gehiago: [uztarria.com/agenda](http://uztarria.com/agenda)



Azpeitiko Udazkeneko Azoka Berezia, dantza txapelketa, musika, buruhandiak, txorizoa, bertsolariak, pilota partidak... egun guztian zehar herriko kaleetan

# ONDO PASATU SANTO TOMASAK 2011




Azpeitiko Udalak dei egiten dizue azpeitiar guztiei eraso sexisten aurrean jarrera aktiboa har dezazuen.  
Eraso sexisten aurrean 112 eta 943 151313.



azpeitia  
udala

HITZ GEZIDUNAK

	Ontzi gidoina	Ezaugarria	Zabarkeria	Erretzeko tresna	Zangoaren atala
	Izena	Alemaniko hiria	Ba... baneuka	Garbikaria	
	Eskuzapi				
	Gure planeta				
	Deitura			Gizon izena	
Lege			Bokala		
		Gizon izena		Bokala	
		Oinarrizko edari		Sarrerak	
Usoen kantua			Alderdi ohia		Potasioa
Mpdua			Nahastura trinkoa		
	Rubidioa		Heldu		
	Bokala		Behiaren arbaso		
Emakume izena		Zerutiko ur		Erbioa	
Junta-gailua		Bizkaiko herria		Lutezioa	
	Benetakoak				
	Kontsonantea				
Labearen barrunbea				Ukapen	

 **Egilea: Luma**

\* Azpeitian bizi den mendizale aizarnarra

HIZKI ZOPA

Gipuzkoan jaiotako futbolarien deiturak aurkitu behar dituzu hizki zopa honetan.



Z	E	X	T	E	R	R	I	G	A	D	I
A	G	E	X	U	M	R	O	Z	K	A	E
L	R	A	E	T	I	T	H	A	U	L	T
B	O	D	B	K	I	N	E	R	Z	O	N
D	E	A	I	D	E	U	U	M	R	O	E
U	L	R	O	N	Z	B	T	I	G	U	R
X	U	T	G	O	N	Z	A	L	E	Z	O
T	S	S	H	A	I	H	U	X	M	O	L
I	T	E	R	E	R	A	O	R	T	P	L
D	O	A	B	T	I	A	Z	E	X	A	Z
O	N	A	I	E	N	L	I	R	O	E	R
I	D	N	E	M	A	R	R	A	L	L	I
K	O	G	A	I	P	Z	I	K	L	E	A
N	T	O	S	U	E	R	T	O	A	I	G

||| SOLUZIOAK |||||

HITZ GEZIDUNAK

O	K	U	●	A	O	G	A	R	R	A	●
K	A	L	A	E	R	R	E	●	A	T	E
R	E	●	R	I	U	E	●	A	B	E	●
U	A	T	O	R	A	●	B	R	●	A	E
●	A	E	●	A	M	U	R	R	U	●	●
A	●	O	K	E	N	E	●	A	U	A	R
A	N	●	I	B	A	N	●	L	A	R	U
P	I	Z	A	U	S	U	M	●	●	●	●
●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●

HIZKI ZOPA

G	I	V	O	I	R	T	O	A	I	N
A	P	Z	A	I	K	L	E	A	●	K
D	N	E	M	A	R	R	A	L	L	D
R	A	I	E	N	I	R	O	E	R	O
Z	A	B	T	I	A	Z	E	X	A	D
L	P	R	E	R	A	O	R	T	P	I
●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●
O	Z	A	L	E	Z	●	●	●	●	●
R	U	L	R	O	N	Z	B	T	I	G
E	D	E	A	I	D	E	U	M	R	O
N	O	D	B	K	I	N	E	R	Z	O
L	T	R	E	T	I	T	H	A	U	L
E	A	G	E	X	U	M	R	O	Z	K
D	I	G	A	D	I	G	A	D	I	G

||| ZEIN DA? |||||



||| ARGAZKI LEHIAKETAN ERANTZUTEKO EPEA. Abenduak 19 (astelehena) ||| NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behea. Azpeitia ||| IRABAZLEARI SARIA. Odriozola upategiko ardo sorta opari ||| PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarrria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da ||| ZER DAGOEN SOBERAN EDO FALTAN ADIERAZI.

||| ZURE IZEN-ABIZENAK

||| TELEFONO ZENBAKIA

||| UZTARRIAREN AZAROKO ARGAZKI LEHIAKETA |||||

ZEIN DA?



ENKARNA ARREGI



IRABAZLEA



Miren Berasategi Uztarrriako bazkidea izan da lehiaketako 133. irabazlea. Odriozola upategiko ardo sorta irabazi du sari gisa.

**ODRIOZOLA ARDOAK**

ardoetan aukera zabalena  
bertako produktuak eta gutxiak

Iñaki Azpiazu, 5 - Azpeitia - Tel. 943 15 13 16  
Axiri poligonoa, 10 - Azkoitia 943850059 / Aitzuri kalea - Zumaia 943860103



## Kaparrak

**H**asi Bardeetatik eta Landataraino azterketa guztiak egin arren, ez dut jakin Euskal Herrian kaparrondo bat bera ere dagoenik. 160 kaparrondo mota baino gehiago dago munduan, eta bere zapore mikatz eta garratz bitartekoak 100jaki ezberdinetan baino gehiagotan parte hartzen du.

Sastraka basatia da *caparis spinosa* eta bere fruitua bi unetan aprobetxatzen da: lorea lehertu aurretik –kaparra deritzo– eta loratu ondoren, haziz betetako ale bat sortzean –kaparroia deritzo–.

Lurralde lehorretan hazten da, eta ondo lehortu ondoren, gatzez edo ozpinez ontzen da, gozagarri bezala erabiltzeko. Batez ere, mariskoentzako saltsetan erabiltzen da; baina baita entsaladan nahasirik, arrain marinatuetan, binagretan eta haragi ke-tuetan erabiltzen da.

Sukaldaritzako produktu mikatzen artean saikatu behar dugu eta, hori dela eta, apetituaren suspergarriak dira, gure sabeleko klorhidriko azidoa eta beste zukuak gehitzen ditu-eta.

Landare honen azal eta zurtoinarekin egindako infusioa gomendatzen da: hesteetako arazoan –haizeak, beherakoa, sabeleko mina...– tratamendurako eta erreumarentzako, *kapparirutina* izeneko elementu bat baitu.\*



||||||| **Julian bereziartua** |||||

## OLENTZERO ikazkina



### 1. Zuk jan-edana ugari...

Kontuz! Nik gogotik lana; hori Erregeek jarritako fama da.

### 2. Tabakoaren kontrako legearekin zer-moduz?

Pipa erretzeari utzi eta azer-nolako sakearekin nabilen!

### 3. Zer-moduz Mari Domingirekin?

Jubilatzeko desiratzen gaude

eta ume bat 'enkargatu' dugu. Bide batez, zaindu gaitzala zahartzaroan.

### 4. Ikatza zeini?

Erretiro-adina atzeratu dutenei. Zerri zikin alenak!

### 5. Sasoiko al da astoa?

Ez al zara enteratu?! BMW-a erosi dut. Atzeko asientuan 'enkargatu' genuen...

### 7. Non bizi zara?

Etxebeltz-Izarran BOE bat tokatu zaigu. Ez inori esan, baina beheko sua jarri dugu gaztainak erretzeko.

### 6. Jasotako eskaririk bereziena?

*Kama Sutan* liburua. Asko gustatu zait eta neuretzat!\*

Uztarrria

 **lentzeria  
mertzeria**  
jose artetxe, 16  
nabar

 **ostadar optika**  
OPTIKAK - OPTOMETRISTAK  
Jose de Artetxe, 17  
Tel. 943-810664  
AZPEITIA  
Ibai Ondo, 28  
Tel. 943-850445  
AZKOITIA

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"  
**URBISTONDO  
MARGOAK**  
Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

*lora-etxea . . .*  
  
**Kimu bat**  
**ASTE BUKAERAN IREKIA**  
Azpeitia-Urrestilla Bidea 20730 AZPEITIA Tfnoa.943 150085 www.kimubat.com

**Sastarrain**  
  
Informazio gehiago eta erreserbak:  
**943 148239**  
Ekain bidea, 6  
ZESTOA  
Haur eta helduentzat jarduerak:  
- Zaldiak (paseoak, ibilaldiak, ikastaroak).  
- Espeleologia, eskalada, baserriko ekintzak, Ekainberriko sarrerak...  
- Bazkariak, ostatua.  
**Etor zaitez familia edota lagunekin egun bikaina pasatuko duzu.**



## |||BLOGAK|||||

## Arrazista ni?

**A**spaldian jende dezente entzun dut kexatzen atzerritarrei ematen zaien tratu erosoegia dela eta. (...) Lagun batek kontatu zidana azalduko dizuet. Furgoneta jarri zuen saltzen. Telefonoz deitu zioten laster, ea furgoneta ikusi eta tratu batera iritsi zintezkeen galdezka. Baietz, nire lagunak. Gelditu dira behintzat. Irunitik zetozen bi marokoar ziren. Furgoneta ikusi eta berehala, prezioa jaitsi zezakeen galdetu zioten. Nire lagunak sentitzen zuela baina ezetz, nahikoa merke zegoela bestela ere. Mehatxuka hasi ziren orduan bi marokoarrak, ahots tonua gehiegi igoz, orduan Irunitik etorri zirela eta, gutxienez, gasolina eta autopistan gastatutakoa emateko mehatxatuz. Urduri jartzen hasi da nire laguna, eta ez diela ezer ordainduko esan die, beraien gustuz etorri direla, ez dutela aurrez gasolina

|||Hau egia izanda ere, ez ditzagun atzerritar denak zaku berean sartu

## |||INKESTA|||

**Galdera eefefee efefee eefefee efefefefeeeee ?**

Xxxxxx. %??,?

Xxxxxx. %??,?

Xxxxxx. %??,?

|||Oraingo galdera. Testua eeeeeeeeee deeeeeeeeee eeee efefee?

edo autopista ordaintzeko tratu-rik egin. Ez duela zertan ordaindu. Marokoarrak gero eta ozenago hitz egiten. Ez badu ezer ordaintzen denuntzia bat jarriko dutela bere aurka. Eskuko telefonoa poltsikotik atera eta matrikulari argazkiak ateratzen hasi da beraietako bat. Kontuz ibiltzeko, matrikula zenbakiarekin non bizi den jakin dezaketela. Azkenean, tentsio eta urduritasun une batzuen ostean bakoitza bere aldetik doa. Ez da ipuin bat. Duela gutxi gertatu da herrian bertan. Ez nion nire lagun honi aurretik arrazista kutsurik zuen komentariarik entzun. Baina hau gertatu ondoren, bere ikuspegia aldatu dela esango nuke. Ez zitzaizun zuri ere aldatuko? Hau egia izanda ere, ez ditzagun atzerritar denak zaku berean sartu. (...)\*

|||||||iñigo ibarguren|||

## |||EFEMERIDEAK|||||

# 1609

**Dohatsu aitortu.** Paulo V. aita santuak Loiolako Inazio beatifikatu zuen.

# 1843

**Urrestillaren independentzia.** Urrestillako 11 biztanle aberatsenetakoek txostena bidali zuten Diputaziora. 1836ko urriaren 15ean emandako dekretuan oinarrituta, Urrestilla herri independentea izendatzeko eskatu zuten, lehenago zen bezala.

# 1894

**Naximentua, aurrenekoz.** Jaiotza lehenengo aldiz ikusgai jarri zuten herrian, Eguberri Egunean.

**Iturria:** Azpeitiko efemerideak. Herria historian zehar liburua.

|||Egilea: Imanol Elias Odriozola.

|||Argitaratzailea: Uztarria Kultur Koordinakundea.\*

# www.uztarria.com

## azpeitiko ataiye

|||eguneko albisteak |||irakurleen erantzunak |||eguneko argazkia |||bideoak |||blogak |||inkesta |||agenda |||bitxikeriak  
|||'azpeitia' atala: zerbitzu publikoen ordutegia, autobusen ordutegia, telefono zenbakiak, euskara atala, farmaziak, festak, hauteskunde denetako emaitzak, geografia, panoramikak, herriko taldeak, liburuak osorik... |||uztarria herri aldizkari denak; PDF formatoan ere bai |||eguneko efemerideak |||gida komertziala...

|||sartu sarean, eta hartu parte |||egunero **7.000** orrialderen bisita



# Afizio eta bizio

Zabalak gaztetatik jakin izan du bere bizitza bizikleten inguruan biraka dabilela.  Eneritz Albizu



# G

ehien gustatzen zaizkigun zaletasunak oso pieza garrantzitsuak dira gure bizitzaren puzzlean. Horiek praktikan jartzean, osatuta sentitzen gara, baina ez badugu horretarako aukerarik, hutsunea lagatzen digute: puzzle batetik pieza bera kendu eta jarri ibiltzea bezala da. Baina non dago zaletasunaren eta bizioaren arteko muga?

## Lehen pedalkadak

Iñaki Artetxe *Xestero* 16 urterekin hasi zen bi-

zikletaren mundura murgiltzen. Adin horretan, "arruntena pilota edo futbolean ibiltzea" zela dio azkoitiarrak, baina argi zuen bera ezberdina zela. Bizikletarenganako pasioa ez zen sortu etxean txirindularitza bereziki maite zutelako, inoiz ez baitzuen familian kirol honetara gerturatu zion eredurik izan.

Bere lehen bizikleta etxean zuten paseoko bizikleta zahar bat izan zen, eta hari esker deskubritu zuen zein zen bere benetako zaletasuna, bizitza osoan alboan izango zuen lagunik onena.

Garai haietan goizean goizetik iluntzera arte lana egiten zuen *Xestero*k eta asteburuetan soilik izaten zuen bizikletarekin gozatzeko abagunea. Beste batzuk parrandarako zain egoten ziren bezala, berak bizikletarekin egiten zuen amets.

"Igande goizetan, bizikletaz joaten ginen elizara eta meza bukatzean, gure ibilaldiari ekiten genion lagun batek eta biok". Hasieran, gurasoek ez zuten atsegin euren semea errepide bazterretan ibiltzea, "arduratuta egoten ziren, baina ohitzen joan ziren".

Denbora aurrera zihoan bezala, Xesterok argi ikusi zuen bizikletan ibiltzea ez zela gazetetan izaten diren bolara kontuko moda horietakoa. Urteak joan eta urteak etorri, pedalei eragitea behar bat bilakatu da azkoitiarrarentzat.

Normalean, bizitza pertsonala eta profesionala banantzen saiatzen garen arren, bere zaletasunarekiko duen pasioak bizikleta denda bat irekitzera bultzatu zuen *Xestero*. Bere kasaka ikasi zuen bizikleta batek dituen bazter guztien egitura: "Denda ireki baino lehen beste bizikleta saltzaile batekin hilabete pasatu nuen lanean, gurpilek muntatzen ikasi nuen, baina gainontzekoa denborak irakatsi dit".

### Iragana eta orainaldia

Denbora nahi baino azkarrago pasatzen da eta gaitasunak gastatzen joaten dira. Arretzek, ordea, bizikletak berretzat zer esan nahi duen azaltzean, orainaldian hitz egin digu beti: ez da atzean utzi duen zerbait.

Barre artean kontatzen du, askotan mendira joateko botak janzten ari dela, "damutu eta bizikletan ibiltzeko arropen bila" abiatzen dela.

Jada badira berrogeita hamar urte lehen pedalkada eman zuenetik eta oraindik ere, errepidera irteten den bakoitzean orduak hegan joaten zaizkio: "Zenbat aldiz gertatu ote zait bizikleta gainean pentsatutako denbora baino gehiago pasatu eta ohartu ere ez egitea".

Azken finean, zaletasunek ez dute adinik; piano jole batek ez du musika bazterrean uzten zahartzen ari delako, edota idazleek ez diote tinta xahutzeari uzten zimur batzuen gorabeheran. Zaletasuna norbere bizitzako zati bihurtzen denean, ezin da albo batera utzi, ar-



nasa hartzea bezain garrantzitsua bilakatzen da.

*Xesterok* bizikleta gainean egon behar du bere gauzez pentsatzeko, arazoak alde batera lagatzeko eta bere zainetatik pasatzen den

odola gaztea dela sentitzeko; norberak aukatzen du non eta nola bilatu bere buruarentzako lasaitasuna.

### Etorkizuna eta helmuga

Txirindularitzaren mundutik apur bat alden du eta bizitza beste era batera ikustea pentsatzen ari da *Xestero*. Hainbeste urteren ondoren, helmuga gerturatzen ari dela sentitzen du eta amaiera oraindik ezin ikusi dezakeen arren, usaindu egin daitekeela adierazi du.

Hala ere, azkoitiarrak urtero gauza bera esaten duela aitortu du, "jada badut garaia bizikletari deskantsua emateko, baina azkenean, ezer ez". Iñaki Artetxerekin hitz egiten egon ondoren, garbi dago bi gurpileko tramankulua afizio eta bizioa, biak direla berretzat.\*

**Lehiaketarik ez**

!!!Harrigarria badirudi ere, Iñaki Artetxe *Xesterok* ez du inoiz bizikleta lehiaketarekin lotu. Txirindularitza ez du gehiegi jarraitzen eta inoiz ez du planteatu lehiaketa serio batean parte hartzerik: "Nik ez dut inori ezer erakutsi beharrik, nire buruarekin ondo sentitzen laguntzen didalako hartzen dut egunero bizikleta".\*

**KIRURI**  
K

**J A T E T X E A**

Loiola hiribidea, 24  
**LOIOLA - AZPEITIA**  
Tlfnoa.: 943 81 56 08  
Faxa.: 943 15 03 62

arte eta diseinu ikostegia

**Artetxe**

- **Dibujo eta eskulanak (haurrak) 17:30/19:00**
- **Pintura 17:30/19:00**
- **Talla 19:30/21:00**

Jose Artetxe kalea, 3  
669 414 025 - 943812808  
**matrikula urte guztian zabalik**

**Tuba**  
aholkularitza

Aholkularitza  
Finaketa  
laborala  
kontablea

Gestori lanak  
Finken administrazioa  
Gestio inbubiliaria

Tlf. 943 137 525 Fax: 943 137 373  
Emparak kalea, 45 • Tuba-azpeitiakal.net

**ORDULARI**

12  
9  
6

Jose de Artetxe, 10  
Tel. 943 81 52 44  
20730 AZPEITIA

## TELEFONO ZENBAKIAK

### TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
INEM	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	0837 80
Aitonena I	81 51 71
Aitonena II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurumen Etxea	81 24 48

### OSASUNA

Anbulatorioa	0254 00
Anbulator. larrialdiak	02 54 01
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	8144 00
Gurutze Gorria	85 32 97
DYA-Donostia	46 46 22

### KOMUNIKABIDEAK

Uztarria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	8900 17
Azpeitian Zer?	81 11 00
Berria	943 30 40 30
Gara	943 31 69 99
Noticias (berriemailea)	687 60 50 06
DV (berriemailea)	610 81 29 12
Argia	943 37 15 45
Nabarra	948 22 71 25
Arrate Irratia (berriemailea)	81 26 32
Loiola Herri Irratia	81 44 58
Euskadi Irratia	943 01 23 00
Erlo Tebista (Azpeitia)	81 53 35
Izarraitz Tebista	85 13 05
ETB	943 01 17 05

### ALDERDI POLITIKOAK

EAJ	81 55 70
-----	----------

## FARMAZIAK (ABENDUA)

### EGUNEZ

1-2-3-4-9-21	5-14-20-24-26	6-10-11-15-22-27-30	7-13-16-19-29-31	8-12-17-18-23-25-28
Aranburu (Azpeitia).	Jacome (Azpeitia).	Beristain (Azpeitia).	Eizagirre (Azpeitia).	Alberdi (Azpeitia).
943 811350	943 080258	943 811949	943 811274	943 815974

### GAUEZ

1-2-3-4-9-22-26	12-13-14-15-16-17-18-27-28-29-30-31	5-6-10-11-23	7-19-24-25	8-20-21
Aranburu (Azpeitia).	Alberdi (Azpeitia).	Gisasola (Azkoitia).	Ruiz (Azkoitia).	Jaen (Azkoitia).
943 811350	943 815974	943 851235	943 851966	943 850660

### LARRIALDIAK

# 112

### ODOL-EMAILEAK

--ren ??an izango dute hitzordua, ??tik ??ra, anbulatorioan.

Hautetsi Independentistak	15 72 00
EA	81 00 11
EB-Aralar	15 72 00

### SINDIKATUAK

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

### KULTURA-EUSKARA

Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	8165 08
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

### IKASTETXEAK

Iraurgi	81 02 10
Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	8163 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28

### BESTERIK

UGLE (Urolako gay-lesbian.)	273 posta
Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi Euskara-Komunikazio Zerbitzuak	

943 08 06 88

## ORDUTEGIAK

UDALETXEA ||| Asteguna: 09:00-13:30 ||| Larunbata: 09:00-13:00 UDALTZAINGOA ||| Egun osoz irekita egoten da ANBULATEGIA ||| Egun osoz irekita egoten da IGERILEKUA ||| Astelehena: 14:00-21:00 ||| Beste astegunak: 07:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 ||| Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 ||| Kanpoko igerilekua: ekaina arte itxita KIROLDEGIA ||| Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 UDAL LIBURUTEGIA ||| Astegunak: 10:00-13:00, 16:00-20:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00 ||| Udan, Gabonetan: 08:30-13:30 ZAPO TXOKO ||| Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 ||| Larunbata: 16:00-20:30

## ERABILGARRI



## TXIKIEN GOZAGARRI.

Urrestillan joan den neguan ireki zuten 0-7 urte artekoentzako jolasgunea, eskola zaharretako lokal batean. Umeak guraso edo zaintzaileen baten kontura ibili daitezke han.

## GARRAIOA

ALDALUR	943 85 27 18
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

||| autobusen ordutegi osoa:

[www.uztarria.com/azpeitia/](http://www.uztarria.com/azpeitia/)  
autobusak

# GARAZI AGIRRE GARATE

Kolonia

“Hemen arriskua bertan gelditu nahi izatea dun”

Iazko ikasturtea Bolivian egitera joan, eta Hego Amerikara itzultzeko grina tarteko, Kolonbian da berriz 📌 **Julene Frantzesena**

**N**olatan hago hor?

Lehenengo urtean Bolivian egon nindunan ikasten, eta esperientzia ederra izan hunan. Azpeitira bueltatutakoan Hego Amerikara itzultzeko gogoarekin. Hilabete batzuetan lana egin eta unibertsitatea amaitu orduko, hegaldi merke bat aurkitu eta hona etorri naun Boliviara joan nintzen lagunekin.

**Zer moduz habil?**

Oso gustura. Leku ikaragarriak zauden Kolonbian. Lurralde oso aberatsa dun jende eta kultura aldetik. Abentura bat dun leku haue-  
tan motxilarekin ibiltzea, era guztietako jende eta egoerekin egiten dun topo.

**Lehen ikastera eta orain bidaiatzera...** Ikasketekin unibertsitatera joateko konpromisoa dun eta ez haiz guztiz aske bidaiatzeko. Orain desberdina dun, alde batera eta bestera presa gabe ibiltzen gaitun eta, aukerak sortu ahala hartu edo uzten ditinagu.

**Nolakoa dun hor jendea, oro har?**

Kolonbiarrak oso irekiak ditun; alaiak, biziak, hiztunak, parranda zaleak eta oso eskuzaballak. Baina, izaera gogorrekoak ditun, euskal-dunon antzera. Bestalde, kanpokoak gara

jakinda ahal duten guztia ematen diten laguntzeko eta gustura sentiarazteko.

**Zer gustatzen zain gehien? Gutxien?**


Gehiena, kaleko bizia; une oro musika entzuten dun. Bestalde, nahiko gizarte matxista dun, askotan emakumeok gauzak bakarrik ezin ditugula egin ematen din. Denean lagundu nahi diten gizonak, eta horrek urduri jartzen nain.

**Zerbait botatzen al dun faltan?**

Batez ere sukaldea. Egunero kalean egiten ditinagu jatorduak eta jatun ona naun, baina arroza eta frijoleekin (baba gorriak) pixka bat nazkatuta nagon. Amaren menestra eder bat jateko gogoz! Eta, larunbatetako Erdi kaleko poteoa ere gustura egingo niken.

**Arriskutsua al dun Kolonia?**

Leku guztietan bezala ordu eta leku batzuk sahiestu beharra zagon. Komunikabideek Kolonbiaren alde beltza bakarrik erakusten diten, baina leku lasaiak ere bazauden eta jendea mundiala dun. Merezi din paraje hauek ezagutzeak. Turismo kanpaina batek dioen bezala: “Kolonbiaren arriskua bertan gelditua nahi izatea da”.\*



1. Garazi Arregi Chichirivichen, lagunekin.  
2. Lagun batekin, Kolonbiako kalean.  
Eskubikoa da Agirre 3. Paisaiaz gozaten.



# Landakanda

**A**zkoitiko Landakaranda kale-baserrian jaio zen 1932an. Ama Elosuko Aroztondo baserrikoa, aita Martirietako Zendoiakoa zituen. Hamar senidetan gazteena da Ramon Zubizarreta Larrañaga. Sei urte zituela Azkoitiko Miserikordian hasi zen eskolan, mojetan. Gero, Floreagako salearretan ibili zen. Hamabi urtetik hemezortzira okin lanetan jardun zuen etxean eta, hurrena, tornu lantegian hiru urtez. Handik oilasko-granjara jo zuen lanean. Anaitasuna futbol-taldean jokatu zuen. Gaztetatik panderoa jotzen ibili izan da Pikua, Maltzeta eta Laja soinu-jotzaileekin, besteak beste. Lau disko grabatu ditu Lajarekin. Euskal Herriko txapelketa bi aldiz irabazi zuen, Lajarekin beti. Hogeita sei urte zituela, Elosu auzoko Itsasagakorta ("Etxesakorta") baserriko alaba Laurentze Larrañagarekin ezkondu zen eta bi alabaren aita da, Beñoña eta Elixabet".

—Gure etxean lan asko izaten zen— base-  
rria eta errota izan Landakanda!—, eta lehen-  
gusuak askotan etortzen ziren, lzerrekoak, la-  
guntzera. Haiek ekarri zuten pandero xaha-  
rra. Nik jo eta: "Ederki jo dek!", esaten zida-  
ten. Eta gustatu, eta hasi nintzen...

Panderoa jotzen ikasi eta segituan hasi  
nintzen kantatzen. Zumarragako trikitixa  
bazen ordurako, Joxe Oriá pandero, Etxesa-  
korta zen soinuaren. Haiek *Mendirik mendi lai-  
noa*... kantatzen zuten, eta nik huraxe ikasi  
nuen lehenengotik. Zumarragako trikitixa!  
Nik Joxe Oriá hura imitatzen jarduten nuen  
beti. Hark bezalako ahotsik ez du inork izan.  
Altua, beldurgarri altua ahotsa!... Gu imita-  
tzaileak gara harenak! Baina hark bezala kan-  
tatzerik, pentsatu ere ez!

Lehenengo plaza Azpeitian egingo nuen,  
Santo Tomasetan. Periko Elorza osintxuarrare-  
kin izan nintzen. Hura soinu handiarekin, ni  
panderoarekin. Hemezortzi edo hemeretzi  
urte, ez dakit zenbat neuzkan nik orduan...  
Gero, Zaldibiara ere joan ginen beste batean.  
Baina ez neukan astirik batera eta beste-



|||||||miel a. elustondo||||

|||Ezkondu nintzen egunean,  
andreak galdetu zidan:  
'Panderoa eraman behar al  
duzu ezkontzara?'

ra ibiltzeko, etxean lana, eta andregaiarenean ere joan egin behar, eta kontuak! Elosun bilatu nuen andregaiarenean, eta beste lekuren batera joaten baintzen ez nuen hara joaterik!

Dena dela, Pikuarekin eta Maltzetarekin ere ibili nintzen, tartean behin.

Ezkondu nintzenean, alto! Akabo nire panderoa. Hogeita sei urte nituen. Ezkondu nintzen egunean, andreak galdetu zidan: "Panderoa eraman behar al duzu ezkontzara?", eta nik: "Ez, ez dut eramango batera". Pikuarekin ezkontzan musika jotzen eta: "Ez al dek pandororik?", denak galdezka. "Ez, ez, gaur ez da panderoa jotzeko eguna!". Eta halaxe. Eta ez nuen jo. Harrezkero, ez. Ehizako afarietan izan ezik. Oilo-granja batean hasi nintzen lanean eta jai eta aste lana egin behar izaten nuen... Ahaztuta ere baneukan nik panderoa! Gustatu bai, baina ez nuen hortik ezer ikusten.

Berrogei urte nituela, hasi nintzen berriz...\*



# HIBETUZ

GABONETAN EGIOZU OPARI BAT OSASUNARI



Damaso Azkue Plaza, 1 behea  
20730 AZPEITIA (GIPUZKOA)  
943 810147 - 689360822  
[www.laguntzateknikoak.com](http://www.laguntzateknikoak.com)

[www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)

PREST  
**m**  
MONDRAGON  
UNIBERTSITATEA

902 110 436

MUndu bat  
nahi beste aukera

## ATE IREKIAK

Goi Eskola Politeknikoa **Arrasate**  
ABENDUAK 17 larunbata, 10:30

Enpresagintza Fakultatea **Oñati** ABENDUAK 15 osteguna, 18:00  
**Irun** ABENDUAK 17 larunbata, 11:00

Gastronomia Zientzien Fakultatea **Donostia**  
ABENDUAK 17 larunbata, 10:30





Ukabi Informatika | tel. 943150101



**innovadental**



**innovadental**

Bisita gaitzazu:

**José de Artetxe kalea, 5**  
(anbulatorioaren ondoan)  
20730 **AZPEITIA** (Gipuzkoa)

Edo deitu:

**943 02 59 55**

**implanteak**

Euskadin, 2.000 INPLANTEtik gora

*Eskatu presupuestoa eta kontsultatu gure finantzaketa!*

**hartz-klinika**  
**AZPEITIA<sup>n</sup>**